



**beitu!**

**Beste inork kontatuko ez dizkizunak!**



Azken hamarkadetan gazteen arteko euskararen ezagutza maila gero eta altuagoa izan bada ere, erabileraren bilakaera ez da hain nabarmena izan.

Argi dago euskal hiztunen ezaugarriak zeharo aldatu direla eta erabileran eragiteko tresnak egungo kontsumo ohiturei egokitu behar direla, gazteen artean bereziki, hauen ezagutza maila altua baita.

Azken urteotan **sare sozialak etengabeko informazio eta aisialdi iturri** bilakatu dira gazteen artean eta **mugikorra da aisialdi** honen kontsumorako erabiltzen duten gailua. Eustatek 2015ean plazaratutako gizarte inkestaren arabera, Interneten nabigatzen duten 3 pertsonetatik 2 gazteak dira.

Hizkuntzari dagokionez, ingelesaren erabilera nabarmen goraka doa, gazte euskaldunek gero eta barneratuagoa baitute sarean aritzeko tresna gisa. Halere, euskara Interneten gehien erabiltzen diren 50 hizkuntzetariko bat dela nabarmendu beharra dago.

Egungo egoerari erreparatuta, **belaundali berriei egokitutako proiektu eraginkorrak** garatu behar dira, euskararen erabileran eragingo ditzutenak. Testuinguru soziolinguistikoa ezinbesteko faktore bat bada ere, **Euskal Herriko gazteen interesekin lotutako tresna baliogarriak** eskaini behar ditugu. Horregatik, **Beitu!** jarri dugu martxan, **teknologia berrietara egokitzen den plataforma digitala**.

## **BEITU! GAZTEEN INTERESEKIN BAT**

Beitu! **derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleei zuzenduta dago** –14-18 urte bitarteko nerabeentzat– eta aisialdiarekin lotutako euskarazko edukiak jorratzen ditu, gazteek kalitatzeko euskarazko edukiak eskura izan ditzaten: teknologia berriek eragiten duten **indubidualismoari aurre egiteko taldekako parte-hartzea sustatuko** duten atalak ditu (esaterako, taldeka parte hartzeko lehiaketak...), **sexua eta drogen inguruko kontsultak** modu pribatuan egiteko aukera (adituek eskaintzen dute zerbitzu hori), **berdintasuna eta parekidetasunaren** inguruko edukiak... baina beti ere **modu entretenigarrian eta hizkuntza modu argian erabiliaz**.



## ZER LORTU NAHI DUGU

**Gazteek duten euskararen erabilera eragitea, hizkuntza erabilia eta bizia izan dadin.** Arlo akademikotik harago, Beitu!-k gaztetxoek aisialdian darabilten euskarazko produktuen kontsumoa eta lagunarteko erabilera sustatu nahi du.

## INFORMAZIO GUZTIA ATZAMARKADA BATEAN

Beitu!-k ordenagailuan ikusita webgune itxura badu ere, **mugikor eta tabletan kontsumitzeko diseinatuta** dago.

Horrela izanda, **eduki gehienek ikus-entzunezko formatua** dute: bideo laburrak, sexu kontsultak, bideo-tutorialak, GIFak, memeak, argazkiak... Pertsonai ospetsuei elkarrizketak eta erreportaje laburrak ere eskaintzen ditu.

Gainera, gai bakoitzean aditua den kolaboratzaile sare bat ari da Beitu!-rekin elkarlanean. Ilustratzaileak, sexologoak, gamer-ak, youtuber ezagunak...

## BEITU! ETA SARE SOZIALAK

**Beitu!** plataforma digitala bera bezain besteko garrantzia dituzte bere **sare sozialek**. Horrela, **Beitu! Youtube kanala eta Instagram** kontuen bitartez **@beitu\_insta**, hainbat **lehiaketa eta erronka proposatzen ditugu** eta **Spotify** zerrendaren bitartez, **euskarazko musikaren aldeko apostua** egiten dugu.

## NOLA JASO BEITU!

Beitu! hilero jaso ahal izateko, harpidetza egin beharra dago portadan azaltzen **JASO BEITU! DOAN** botoia sakatuz edo sartu **[www.gaztezulo.eus/beitu](http://www.gaztezulo.eus/beitu)** orrialdean. Behin harpidetza eginda, erabiltzailea **Beitu! komunitatearen kide** izango da eta zenbaki bakoitza posta elektronikoaz jasotzeko aukeraz gain, Whatsappean jaso ahal izango du. Modu honetan, lagunarteko zabalkundea errazagoa izango da.

## DATUEN BABESA

Gazteek emandako datu pertsonalak (telefono mugikorra edo e-maila) Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa bitartez egongo dira babestuak.